


Itsas hondoa




Gizakia bidaiari nekaezina izan da historian zehar. Beti ibili da lur berrien bila, harik eta planeta guztiko erliebea ezagutu duen arte. Baina itsas hondoa misterio handia izan da giza-kiarentzat mendeetan zehar. Inork ere ez zekien zein zen ozeanoen sakonera, ezta nolakoa zen lurrazalaren forma ur azpian ere. Baina, Europa eta Amerika elkar komunikatzeko asmoz, Atlantikoan kableak bota behar izan zituztenean, itsas zorua interes handiko gaia bihurtu zen.

1870ean, Challenger itsasontzi britainiarrak itsas hondoaren azterketari ekin zion. Haren sakonera neurtzeko, zunda erraldoi bat erabiltzen zuten. Zunda hura mutur batean pisu bat zeukan 6 kilometroko kable luze-luzea zen. Uretan sartzen zuten, hondoa jotzen zuen arte, eta urperatutako zatia neurtzen zuten. Baina prozedura oso-oso motela eta astuna zen.

Gero, zientzialariek ikusi zuten soinuak objektu baten aurka jaurtiz gero, soinu haiek errebotatu eta hasierako puntura

itxultzen zirela. Hala, 1922an, «sonar»a asmatu zuten. Asmakizuna itsasontzian jarri eta soinu-uhin altuak jaurtitzen zituzten itsas hondorantz. Hondoran errebotatzean, soinuaren oihartzuna sonarrera itxultzen zen eta tramankuluak, igarotako denboraren arabera, sakonera neurtzen zuten. Oihartzuna nolakoa den aztertuta, jakin liteke uhinek kolpatu duten objektua harkaitz-hondoa den (sakonera neurtu) arrain-sarda den (arrantza-ontzientzat oso baliagarria da) edo objektu metalikoa den (hondoratutako ontziak aurkitzeko balio du).

Sonarrarekin jakin dugu hondo ozeanikoa lehorreko lurrazala baino askoz gorabeheratsuagoa dela. Adibidez, Hawaii uhartea itsaspeko mendi baten gailurra da. Mendi hori 9.900 metrokoa da, Everest mendia baino garaiagoa. Itsas hondoran ehunka kilometro luze diren arroilak daude, ibaien ohantzearen antzekoak. Batzuen ustez, arroila horiek lurrazaleko ibaien jarraipena dira, ozeanoak baxuago zeuden garaian sortutakoak. Atlantikoan sigi-saga ozeanoa zeharkatzen duen urpeko mendikate ikaragarria dago eta haren tontor garaienak ur-azaleko uharteak dira, Azoreak adibidez. Leize edo ozeano-fosa sakon-sakonak daude, putzu erraldoiak bezalakoak; sakonena Marianak uharteetan dago, Filipinen ondoan, Ozeano Barean. Fosa horrek 11.034 metroko sakonera du.



1 Aukeratu. Zein da testuko ideia nagusia?

- ☐ Sonarra oso baliagarria izan dela arrantzarentzat.
- ☐ Itsas hondoa gero eta hobeto ezagutzen dugula, zientziari esker.
- ☐ Itsas hondoa lurrazala baino askoz handiagoa dela.

2 Erantzun.

Noiz bihurtu zen itsas hondoaren interes handiko gaia? _____

Nola neurtzen zuten hondoaren sakonera Challenger itsasontzitik? _____

Zer jakin zuten zientzialariek soinuari buruz? _____

Zer dira itsasoko arroilak, batzuen ustez? _____

3 Aukeratu. Zer testu mota da irakurri duzuna?

- ☐ iritzi-testua
- ☐ deskribapen-testua
- ☐ azalpen-testua

4 Bete esaldietako hutsuneak radarrean azaltzen diren hitzekin.



Ez naiz sekula Hawaii-n egon, _____ bestelako uharte batean ere.

Azoreak uharteak dira eta Marianak _____.

Sonarrak arrainak ez ezik objektuak _____ detektatzen ditu.

Nik ez nekien itsas hondoari buruzko ezer; eta lagunek _____.

5 Testua lau paragrafotan dago banatuta. Asmatu izenburu bana testuko paragrafoentzat, adibidean bezala.

1. PARAGRAFOA: *Itsas hondoaren misterioa.*

2. PARAGRAFOA: _____

3. PARAGRAFOA: _____

4. PARAGRAFOA: _____